# BERGARA

10 Udal Aldizkaria
martxoa 2007

BERGARAKO UDALA

www.bergara.net









Udalak zuen iradokizunak jasotzeko bide desberdinak eskaintzen dizkizue; aldizkari honetan aurkituko duzuen iradokizun orria bete eta Udaltzaingoaren ondoan dagoen kutxatilan sartu, www.bergara.net web orrian.

Iradokizun orria barnean

*El Consistorio ofrece dos posibilidades para hacer llegar vuestras sugerencias. La primera es rellenar la hoja adjunta y depositarla en la urna que se encuentra junto a la Policía Municipal, y la segunda, mediante la web www.bergara.net*

*Incluye hoja de sugerencias*

10

# NUEVOS PROYECTOS PARA EL FUTURO DE BERGARA

Nuevos proyectos se van formalizando en nuestro pueblo, para ayurdar a construír el futuro. Los ámbitos que abarcan van desde la Cultura, pasando entre otros por las infraestructuras viarias y urbanas, la Educación, hasta llegar a nuevas infraestructuras sociales.

**ZUMARRAGATIK BERGARARA DATORREN BIDEAREN BIKOIZKETA MARTXAN**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006ko abenduan erabaki zuen GI-632 errepidearen Urretxu/Legazpiko lotunetik Bergararainoko zatiko saihesbidea egiteko proiektua idazteko lehiaketa publikoa deitzea 2.100.000 €ko lizitazio oinarriarekin. Deialdia 2006ko abenduaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Halaber, GI-632 errepidearen Urretxu/Legazpiko lotunetik Bergararainoko zatiko saihesbidea egiteko proiektuaren jarraipenak, kontrola eta ikuskatu aurreko txostenen prestaketarako aholkularitza eta laguntza kontratatzeko lehiaketa publikoa ere deitu du Aldundiak, 300.000 €ko aurrekontuarekin edo lizitazio oinarriarekin (2006ko abenduaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).



Honenbestez, garbi dago epe laburrean Zumarragan amaitzen den GI.632 errepidearen bikoizketak jarraipena izango duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko muga arte. Jakina den moduan honek suposatuko du Deskarga mendatea tunel baten bidez zeharkatzea eta orain dela urte gutxi egin zen Bergarako saihesbidea bikoiztea. Aspaldiko erronka errealitate egiteko bidean da.

**REHABILITACIÓN Y AMPLIACIÓN DE LA RESIDENCIA MIZPIRUALDE**

El pasado 26 de enero de 2007 el Ayuntamiento de Bergara y el Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa suscribieron un convenio por el que la entidad foral se compromete a la financiación del 75% del coste de las obras de rehabilitación y ampliación de la actual Residencia Mizpirualde, siendo el restante 25% a cuenta del Ayuntamiento de Bergara. Como consecuencia de las obras que se acometan, de las 115 plazas actuales se pasará a las 141 y se ejecutarán 6 apartamentos tutelados para cada dos personas autónomas. Igualmente cabe subrayar que las actuales 10 plazas en el Centro de Día se incrementarán hasta las 25 plazas.

La ejecución de las obras traerá consecuentemente la demolición del frontón de Zabalotegi y el traslado del euskaltegi. En este sentido cabe subrayar que el Ayuntamiento ya ha adjudicado la redacción del proyecto de acondicionamiento de la planta primera del mercado municipal para ubicar en mejores condiciones, si cabe, el servicio de euskaltegi municipal. En cuanto al servicio dispensado por el frontón cubierto de Zabalotegi, el Consistorio está estudiando la cubrición de algún frontón de titularidad municipal, al objeto de paliar el déficit generado por el citado derribo.

La inversión estimada que se prevé en alrededor de 6 millones de euros o 1.000 millones de las antiguas pesetas, ya se ha puesto en marcha, ya que el Pleno municipal celebrado el pasado 5 de febrero resolvió aprobar las bases de la convocatoria pública para la contratación de los servicios de redacción del proyecto de derribo del Euskaltegi municipal y la ampliación de la Residencia de Ancianos de Mizpirualde. La misma ha sido publicada en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de 13 de febrero de 2007. Se espera tener el proyecto básico junto con la maqueta de la actuación proyectada para el mes de mayo.



**ERREGE SEMINARIOAREN ZESIOA UNED-EKO PATRONATOARI ETA HONEK BERGARAKO UDALARI ETA IKASTOLA ARANZADIRI**

Aspaldiko urteetako eskaera eta aldarrikapena burutu da. Alegia, Errege Seminarioko eraikinaren erabileraren banaketa modu legalean jasota uztea eta nolabait bere erabilera Bergarako Herriaren adostasunarekin egitea. Honenbestez, aipatutako erabileraren banaketa modu zehatzean jasotzen duen dokumentua edo hitzarmena 2007ko otsailaren 19an sinatu zen Bergaran. Aurrez gogoratu behar da, 2006ko urriaren 30ean Uned-aren aldeko zesioa izenpetu zuela Estatuak. Jakina da Errege Seminarioko eraikinaren jabegoa Estatuak eskuratu zuela 1764. urtean Jesusen Lagundiari (Compañía de Jesusi) ondasunak kendu ondoren.

Erregularizazio juridiko honen atzetik zesio-hartzaileak izan diren Erakunde ezberdinek abian dituzten proiektuak gorpuzten joango dira, modu koordinatu batean eraikinaren birgaitze edo errehabilitazioa egiteko eta udalerriaren bihotzean dagoen historiaz beteriko eraikin honen erabilera susta-tzeko.



**EL AYUNTAMIENTO COMPRA EL PATIO DEL REAL SEMINARIO AL ESTADO**

El pasado 14 de febrero el Ayuntamiento en sesión plenaria, de acuerdo con la resolución previamente adoptada el 7 de noviembre de 2005, aprobó la compra del patio del Seminario al Ministerio de Economía y Hacienda del Estado. La parcela adquirida cuenta con 4.822 m2 y en ella el Ayuntamiento de Bergara prevé construir alrededor de 200 garajes subterráneos. El importe de esta enajenación se cifra en 741.000 €, teniendo en cuenta que 235.456,33 € se han pagado en metálico y el resto (505.543,67 €) mediante la transmisión de 24 garajes debidamente acabados, que se situarán en la primera planta de sótano.

El Ayuntamiento está estudiando el modo de abordar la ejecución de esta inversión.



**ZABALOTEGIKO UDAL ARETOA ERABERRITZEA**

Zabalotegiko udal aretoa eraberritzeko lanen komenigarritasuna ikusirik (erabilera anitzak emateko xedearekin -zinea, antzerkia, etabar-), Udalak erabaki berri du proiektu teknikoa idazteko adjudikazioa “E. Igartua estudios y proyectos S.L.” enpresari, 11.985 €tan (BEZ barne) esleitzea. Proiektua martxoaren amaierarako aurkeztuko da eta Udalaren asmoa da obrak lehenbailehen burutzea, besteak beste, zine erabilera eman eta udalerriko elkarte ezberdinen lanerako ezinbestekoa den ekipamendua egokitzeko.







Victoriano Gallastegi

# RENOVACIÓN E IMPLANTACIÓN DE SERVICIOS E INFRAESTRUCTURAS BÁSICAS PARA BERGARA. REALIDAD Y RETO

En el ocaso de la legislatura parece conveniente realizar un pequeño análisis de la realidad municipal y de la situación en la que se encuentra Bergara respecto al futuro más próximo que nos aguarda.

La gestión municipal cuenta con diversas vertientes y cometidos. Entre ellos está el activar, impulsar, coordinar políticas con otras Instituciones, mediante la implantación de servicios y la ejecución de infraestructuras que redunden en la mejoría de la calidad de vida de sus vecin@s. La distribución competencial sitúa al municipio, en la mayoría de los casos, en el eslabón más débil o con menos disponibilidad económica y a su vez en la institución más próxima al ciudadan@, obligada a atender, en un sinfín de ocasiones, necesidades de primer orden, para los que muchas veces no se cuenta con los recursos humanos y económicos deseados.

Bergara se sitúa en el corazón de una comarca, el Alto Deba, que posiblemente sea la peor comunicada del Territorio Histórico. En cualquier caso, el carácter emprendedor, decidido y trabajador de sus gentes, ha hecho de este municipio uno de los que mayor y más próspera actividad industrial congrega. Todo ello, estos últimos años, está siendo coadyuvado por las cuantiosas inversiones que desde la Diputación se están realizando en materia de infraestructuras viarias (la autopista Eibar-Vitoria, que en poco tiempo verá concluídas las obras en toda su extensión, así como el eje Beasain-Durango, que recientemente ha licitado la redacción del proyecto técnico entre Zumárraga y Bergara). La reciente llegada del tranvía a la comarca y a Bergara, así como la conexión directa de Euskal Herria con el resto del Estado como con Europa mediante la red ferroviaria de alta velocidad, sitúan a Bergara en un atractivo nudo de comunicaciones, que a buen seguro garantiza el bienestar y calidad de vida de sus habitantes.

Las inversiones materializadas en la renovación y mejora de las dotaciones públicas ha sido y es una constante dentro de la gestión municipal de estos últimos años. La puesta en funcionamiento de un nuevo equipamiento deportivo como el de Agorrosin, nos sitúa en la vanguardia de Gipuzkoa; las obras de adecuación de la Haurreskola, han posibilitado que este servicio de guardería pública sea una realidad en Bergara; las obras de saneamiento, con la instalación de una estación depuradora de aguas residuales en Mekolalde, son símbolo del respeto por la salubridad y medio ambiente; la recuperación de la posesión del Real Seminario, que ha posibilitado la segregación y reparto de su superficie entre la Uned, el Ayuntamiento y la Ikastola Aranzadi (una gestión lenta pero constante, que ha obtenido sus frutos en beneficio de la población de Bergara); la remodelación y ampliación de la Residencia de Ancianos de Mizpirualde, gracias al Convenio suscrito con la Diputación Foral de Gipuzkoa, vehiculizará en breve sobre nuestro municipio una cuantiosa inversión, que se perseguía desde hace tiempo; el traslado y nueva construcción de la Escuela Profesional, a la zona de Mayc (falda de Surra), igualmente se hará realidad a lo largo de la próxima legislatura, cimentando de esta manera una inversión determinante para la formación de l@s bergareses-as que seguirán posibilitando que Bergara sea una referencia en la producción industrial de calidad y que a la postre garantizará el modus vivendi.

La revisión del planeamiento municipal, que está en fase de aprobación, va a posibilitar durante los próximos años una regeneración y reordenación urbana de primer orden (Algodonera, Movilla, Tornillería Deba, Hijos de Arturo Narvaiza, son botón de muestra de lo señalado). Asimismo, el nuevo plan general de ordenación urbana conllevará la construcción de un número importante de viviendas de VPO y tasadas, además de impulsar la puesta en el mercado inmobiliario de viviendas en régimen de alquiler para jóvenes.

La habilitación de suelo para el desarrollo de actividad económica (industrial) es otra de las claves de futuro para Bergara, que está en un primer plano en la retina de este Alcalde. La modificación de normas subsidiarias emprendidas en la zona de Larramendi, va a impulsar en el corto plazo un importante desarrollo industrial en San Juan, que indudablemente posibilitará la ubicación de nuevas empresas generadoras de riqueza y bienestar en Bergara.

Las diversas actuaciones de reurbanización urbana (Artekale, Arruriaga, Goenkalea, Juan Irazabal, Domingo Irala), junto con la implantación en los próximos meses de diferentes dotaciones culturales (que se unen a la rehabilitada actual sala de exposiciones Aroztegi), entre los que cabe señalar el Real Seminario junto con la sala de usos polivalentes de Zabalotegi, van a completar el puzzle, que hacen presagiar un futuro prometedor para nuestro municipio.

Entiendo que hay mucho por hacer, pero hay mucho hecho. La realidad de los hechos y el trabajo realizado durante estos años son muestra de que el futuro de Bergara está encarrilado, cimentado y apuntalado.

# ZERBITZUAK ETA OINARRIZKO AZPIEGITURAK ERABERRITZEA ETA EZARTZEA BERGARAN

Legegintzaldia bukatzekotan dagoela, badirudi komeni dela Udalaren errealitatearen azterketa txikia egitea eta ikustea Bergara nola dagoen gain-gainean dugun etorkizunari begira .

Udalaren gestioa hainbat alderdi eta eginkizunek osatzen dute. Horien artean garrantzitsuenetako bat da beste erakunde batzuekin batera hainbat arlotako politikak martxan jartzea, bultzatzea eta koordinatzea, herritarren bizi kalitatea hobetzeko balioko duten zerbitzuak ezartzeko eta azpiegiturak gauzatzeko. Eskumenei begiratuta, udalak dira, gehienetan, ahalmen txikien edo erabiltzeko diru gutxien dutenak. Aldi berean, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak dira, makina bat aldiz premiarik garrantzitsuenei erantzun behar izaten dietenak, nahiz eta askotan ez izan horretarako nahi besteko giza baliabiderik eta ekonomikorik.

Bergara Debagoiena eskualdearen erdigunean dago, agian Gipuzkoako Lurralde Historikoan gaizkien komunikatuta dagoen eskualdearen erdi-erdian. Edozelan ere, Udalerri hau da industria gehien eta industria arrakastatsuenak hartu dituenetako bat, eta hori dena izan da bere herritarren izaerari esker, benetan jende saiatua, ausarta eta langilea izan delako. Azken urteotan Diputazioa ere laguntzen ari da honetan, bide azpiegituretan inbertsio handiak eginaz; besteak beste, Eibar-Gasteiz autobidea –laster bere obra guztiak bukatuta izango ditu– eta Beasain-Durango ardatza –Zumarraga eta Bergara arteko zatiaren proiektu teknikoa idazteko lanen lizitazioa duela gutxi egin da–. Laster tranbia helduko zaigu eskualdera eta herrira eta abiadura handiko trenaren bitartez Euskal Herria Estatuko zein Europako gainontzeko herriekin lotuta egongo da zuzenean; hori horrela, komunikabide horiek osatuko duten sarean bidegurutze bihurtuko da Bergara. Horrek guztiak, ziur aski, bere herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobea ekarriko ditu.

Herriko ekipamenduak berritzeko eta hobetzeko inbertsioak egitea izan da azken urteotan udal gestioaren konstante bat, eta oraindik ere hala da: Agorrosingo kirol ekipamendu berria martxan jarri da eta horrekin Gipuzkoako abangoardian kokatu gara; Haurreskola egokitzeko lanak burutu dira eta Bergarak badu azkenean haurtzaindegi publikoaren zerbitzua; saneamendu sarean obrak egin dira eta Mekolalden hondakin uren araztegia jarri da, osasungarritasunaren eta ingurumenaren aldeko lanaren ikur dena; Errege Seminarioa berreskuratu da eta horri esker bere azalera zatitu eta banatu ahal izan da UNED, Udala eta Aranzadi Ikastolaren artean (gestioa astiro doa baina gelditu gabe, eta Bergarako herritarren onerako da); Mizpirualde Zaharren Egoitza birmoldatu eta handituko da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenari esker, eta aspaldditik itxaroten genuen inbertsio handia egin ahal izango dugu gure udalerrian; Lanbide Eskola Mayc aldera (Surra mendiaren hegalera) eramango da eta eraikin berria egingo zaio datorren legegintzaldian zehar, eta horrela bergararren prestakuntzarako funtsezko inbertsioaren zimenduak ezarriko dira, etorkizunean ere Bergara kalitatezko ekoizpen industrialaren erreferentzia izan dadin eta bertakoen bizimodua bermatu dezan.

Gaur egun onartzeko fasean dagoen Udal Planeamenduaren berrikusketak berebiziko biziberritze eta berrantolaketa urbanoa ekarriko du. Algodonera, Movilla, Tornilleria Deba, Hijos de Arturo Narvaiza dira horren erakusgai. Era berean, babes ofizialeko etxebizitza eta salneurri tasatuko etxebizitza kopuru esanguratsua eraikitzea ekarriko du Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak, hala nola alokatzeko etxebizitzak merkatura ateratzea gazteentzat.

Bergararen etorkizunerako beste gakoetako bat, alkate honen jomugan lehentasunen artean dagoena, jarduera ekonomikoen garapenerako – industriarako – zorua egokitzea da. Larramendi inguruan abiatutako Arau Subsidiarioen aldaketak, epe laburrean, San Juanen industria- garapen garrantzitsua eta, zalantzarik gabe, enpresa berriak bertan kokatzea ekarri ahal izango du, Bergaran aberastasun eta ongizate sortzaile izango direnak.

Ezin, bestalde, ahaztu zenbait kaletako berrurbanizazio lanak (Artekalea, Arruriaga, Goenkalea, Juan Irazabal, Domingo Irala) eta hurrengo hilabeteetan egitekoak diren hainbat kultura-ekipamendu, besteak beste, Errege Seminarioa eta Zabalotegiko erabilera anitzeko aretoa (eraberritua izan den Aroztegi Aretoari gehituko zaizkionak).

Seguru nago pieza horiekin guztiekin osatzen den puzzleak etorkizun oparoa ekarriko diola gure herriari.

Badakit egiteko asko dagoela, baina baita egindako asko ere. Ekintzen errealitateak eta urte hauetan egindako lanak erakusten digute Bergararen etorkizuna bideratua, oinarritua eta sendotua dagoela.

## ARCELOReko eremuan jarriko dute Udal Biltegia

Udalak biltegi berria behar du eta ARCELOR enpresarekin adostasunera iritsi da pabiloi bat erabiltzeko. Gaur egun Labegaraietan dagoen biltegia egoera txarrean dago eta Udalak eraistea erabaki du. 25 urtetan han egon ondoren, udal brigadako biltegia orain ARCELOReko pabiloi batera eramango dute. Hala ere, orain eskuratu den pabiloi hori ez da nahikoa izango Udalak duen material guztia batzeko eta aztertzen dabil non har dezakeen beste lokal bat, beharrak asetzeko.

Udalak gaur egun bi tokitan du batuta behar duen materiala. Labegaraietan du brigadako biltegia eta beste biltegi bat Arruriagan du. Orain premiazkoa da aldaketa egitea eta behin behineko pabiloiak egokituko ditu.

Aurrera begira, Udalak beharrezko ikusten du udal biltegia hartuko duen eraikin berria egitea. Oraindik, hala ere, hori asmo bat da eta inolako erabakirik ez da hartu gaiaren inguruan.



## La contaminación lumínica a estudio

La empresa ACC, que realizó el estudio sobre la contaminación acústica, es la encargada de realizar ahora el estudio sobre la contaminación lumínica en Bergara. En esta primera fase, se determinará el nivel de luminosidad del alumbrado público en cada zona y para cada servicio y si es acorde a las necesidades que debe cubrir. Así, ACC realizará un inventario del alumbrado y hará un diagnóstico inicial. Esta primera fase es la que, de momento, ha contratado el consistorio.

En fases posteriores, se deberán tener en cuenta las recomendaciones que sobre iluminación hace la Comunidad Europea y se determinarán unos criterios para aplicarlos a cada caso. Para realizar este estudio, Bergara ha recibido ayuda económica del EVE (Ente Vasco de la Energía adscrito al Gobierno Vasco).



## Tranbiaren proiektu aldaketaren dokumentu teknikoari alegazioak

Udalak hainbat alegazio jarri dio berriz ere Debagoieneko tranbiaren proiektuari. Lehenean aldez aurretik jarritako alegazioak gogoratzen ditu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak erantzun ez dituelako. Hain zuzen ere berriro eskatzen du Ozaetako geltokiaren ondoan eraikitzea aurreikusita dagoen oinezkoentzako pasabidea ez eraikitzea eta horretan gastatuko litzatekeen dirua jartzea Ozaeta eta Zubiaurre bitartean aurreikusten den zubia egiteko. Halaber, beste geltoki bat Ozaeta 13ko eraikinaren eta Deba ibaiaren gaineko zubiaren artean jartzea, Labegaraietako kiroldegi inguruan tranbiak oso zehaztuta izatea ibilbidea eta abiadura mugatzea. Horretaz gain Udalak eskatu du eremu horretan galtzen diren aparkalekuen arazoa konpontzea eta Ipiñarri zerratokian ibilbidea garapen industrialari egokitzea.



Jaurlaritzaren proiektuari jarraituz, proposatutako tunel batean uholdeak gerta litezke, oinezkoendako hainbat esparru desagertu lirateke, ezin izango litzateke Algodonera inguruko etxeetara iristeko zubi bat eraiki eta Ibargarai kaleko autoen joan etorria ere ezinezkoa litzateke.

Udalak proposatutako ibilbidean, bestalde, Zurradero kaletik ez litzateke igaroko tranbia eta Santa Marina zubia oinezkoentzat bakarrik izango litzateke. Oro har, Udalak proposatutako ibilbidea motzagoa eta azkarragoa da, gune estrategikoetan proposatu ditu geltokiak eta kontuan hartu ditu Deba ibaiak sor ditzakeen uholdeak. Azkenik, finantziazioari buruzko argibideak eskatzen ditu.

## Agorrosingo lanak bigarren fasean sartu dira eta ekainerako prest izango dira bainuetxeko zerbitzu guztiak eta gune berdea

Agorrosingo lanak ondo eta azkar egiten ari dira. Antzibar enpresak amaituta ditu dagoeneko igeltseritza lanak eta orain beste alorrei ekin die. Egitura nagusia amaituta, orain barruko azpiegiturak egokitzea da egin beharreko lana. Berebiziko garrantzia du orain iturginak egiten dabiltzan lanak. Bainuetxeak 36 gradutan egongo den igerilekua izango du, burbuiletako ohea, hidromasajea, ur-jauzi txikia, bizkar hezurrerako iturria, lurrunezko bainua, sauna lehorra, hezea eta hotza, izotzezko iturria, dutxa termostatikoak eta beste hainbat zerbitzu. Zerbitzu horiek erabiltzeaz gainera, erlajaziorako propio gertatuta dauden zerbitzuak ere erabili ahal izango dira.

Argindarra egokitzeko lanak ere egiten dabiltza. Ondoren apainketa lanak egingo dituzte.

Antzibar enpresak abenduan hasi zituen lanak eta jarritako epeak gordetzen ari da. Guztira Agorrosingo bainuetxea amaitzeko Udalak 899.744 € bideratu ditu.

Bainuetxea Agorrosingo bazkide guztiek erabili ahal izango dute, kirol zerbitzuko hileko tasa edo egun bateko sarrera ordainduta. Ekainean, bainuetxearekin batera, berdegunea inauguratuko da.

1 piscina
a cama de burbukas
b minicascada
c hidromasaje
d chorro vertical
e hidromasaje agua / aire
2 pileta 14º
3 ducha pulverizada termostática
4 gran canyon
5 fuente de hielo
6, 11, 14 armario técnico
7 baño de vapor
8 ducha ciclónica
9 ducha corpo termostática
10 dream shower
12 sauna
13 frigidarium
15 relax
16 pasillo acuático



## Los interesados en acceder a las viviendas que se construirán en el antiguo solar de los Camineros deberán inscribirse en el Ayuntamiento

ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A., construirá próximamente 38 viviendas protegidas donde estuvo el edificio de los Camineros. Las obras, cuya primera piedra se colocará el día 5 de marzo, tienen un plazo de ejecución de 15 meses. Se preve que se entreguen hacia junio de 2008. 30 viviendas se venderán en régimen de derecho de superficie por 75 años, y 8 viviendas (de una habitación), se destinarán al arrendamiento. El precio de venta de las viviendas será de 1.900 euros/m² útil, el de los trasteros de 900 euros/m² útil, y el de los garajes de 15.025 euros. El precio de venta total de una vivienda de 2 habitaciones con trastero y garaje saldrá por aproximadamente 150.000 euros, IVA aparte.

El plazo de solicitud para las 30 viviendas a vender en derecho de superficie se iniciará el 6 de marzo, y podrá obtenerse información y presentar las solicitudes en el Ayuntamiento. Los interesados de la comarca podrán apuntarse en Suradesa, así como en ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A. En cuanto a las 8 viviendas a arrendar, el proceso se abrirá dentro de un año aproximadamente. Dichas viviendas, estarán orientadas bien a jóvenes que desean formar su primer hogar o bien a personas mayores no dependientes. La adjudicación de las viviendas se realizará mediante sorteo atendiendo a los requisitos establecidos en las bases.

**CARACTERÍSTICAS DE LAS 30 VIVIENDAS EN VENTA**

| Familia | Vivienda | Bergara | Alto Deba | Gipuzkoa | Total |
|---|---|---|---|---|---|
| Minusválidos | 1 minusválido | | | 1 | 1 |
| 1 miembro | 1 dormitorio | 1 | | | 1 |
| 2-3 miembros | 2 dormitorios | 8 | 8 | 4 | 20 |
| 4 o más miembros | 3 dormitorios | 4 | 3 | 1 | 8 |
| Suma | | 13 | 11 | 6 | **30** |



BERGARAKO UDALA

# (IKUSTEKOAK)



01




02



03









04







05







06






08




07



09








10

**01**
Jose Angel Areta Goñik "Amazoniatik Ozeano Bareraino" erakusketa izan du zabalik.
Exposición "Del Amazonas al Pacífico" de Jose Angel Areta Goñi.

**02**
Aurtengo Aratusteetako kartela Mikel Calvok egin du.
Mikel Calvo ha diseñado el cartel de los Carnavales de este año.

**03**
Asteburuetan haurrek jolasean ibiltzeko bi kale izan dituzte otsailean igerilekuetan.
Los fines de semana de febrero dos calles de la piscina se han destinado a juegos infantiles.

**04**
Agorrosinen 2006ko Ageriko Pintura txapelketako koadroak eta urteetako Kirol Argazki Lehiaketetako argazkirik onenak erakusten dira.
Agorrosin expone cuadros del Certamen de Pintura al Aire Libre de 2006 y de las mejores fotografías de concursos de fotografía deportiva.

**05**
Udal pilotalekuko taberna martxoan zabaldu-ko da. Claudia Liliana Manriquek hartu du ardura 5 urtetarako.
El bar del frontón municipal se reabrirá en marzo. Lo regentará Claudia Liliana Manrique durante 5 años.

**06**
Agorrosingo ludotekak txotxongiloak egiteko ikastaroa egingo du martxoan.
La ludoteca de Agorrosin realizará un cursillo de marionetas en marzo.

**07**
Lur azpiko zaborontziak jartzeko lanak abian dira.
Las obras para instalar los contenedores soterrados están en ejecución.

**08**
Aurten ere Korrika etorriko zaigu martxoaren 25an 07:17etan.
Este año la Korrika pasará por Bergara el 25 de marzo a las 07:17 horas.

**09**
"Obaba" filma eskainiko dute Agorrosinen martxoaren 31n eta apirilaren 1ean.
El 31 de marzo y el 1 de abril se podrá ver la película "Obaba" en Agorrosin.

**10**
Aurtengo neguak egun epel eta bero asko eman dizkigu eta udaberrian bezala ibili dira lagun asko.
Las altas temperaturas de este invierno nos han permitido vestirnos como en primavera.

# Mugikortasuna hobetzeko azterketa egiten ari dira, etorkizunean neurriak hartzeko





Hiri guztietan bezala, Bergaran ere mugikortasuna arazo bihurtu da. Azterketa egiten ari den Bizkaiko Leber enpresak oreka zaila aurkitu beharko du herrirako. Izan ere, autoen joan etorria ez da zaildu behar, hiri barruan kalitatea bermatu behar da, aparkalekuak egoki egituratu behar dira, garraio publikoa bultzatu behar da eta oinezkoentzako eremuak gorde behar dira.

Hori guztia egituratzeko, herriko arlo ugari aztertzen dabiltza orain. Egitamu orokorraren ezaugarriak, motordunen eta oinezkoen mugikortasuna, dauden aparkalekuak, errepideen egokitasuna eta erabilera, istripuen kopurua, dagoen garraio publikoa eta berari buruz herrian dagoen iritzia eta garraio osoak ingurugiroan duen eragina ikertu behar dute. Horretaz gainera, eremu publikoak zeintzuk diren eta zein kalitatea duten aztertzen dabiltza. Ikerketa horien bitartez, herriko mugikortasuna zein den eta zer beharri aurre egin behar zaion jakiteaz gainera, herriak mugikortasunaren ondorioz duen airearen eta zaratare kutsadurak zein mailakoak diren ere jakin daitezke, aurrerantzean konpontzeko neurriak hartu ahal izateko.

Mugikortasun planerako azterketa egiteko, Leber enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europako hainbat aholkuri jarraitzen dio. Esate baterako, kontuan hartu ditu IHOBE Elkarte publikoak bultzatu duen gida metodologikoa, Europako oinezkoen gida, Hirietako ingurugiroaren Liburu Berdea eta Aalborg-eko Karta, besteak beste.

Informazio osoa batzeko, herritarren parte hartzea ere beharrezkoa izango da. Horregatik, herriko hainbat talderekin informazio bilerak egingo dituzte enpresak duten informazioa zabaltzeko eta baita udalak duen hainbat informazio jakinarazteko ere. Bestalde, azterketa egiten ari diren teknikariek herritarren informazio zuzena beharko dute eta horretarako, besteak beste, aparkalekuen, autoen joan etorrien eta oinezkoen eremuen gaineko inkestak egingo dituzte.

Oraingoz Udalak mugikortasunaren azterketa egiteko eskatu dio Leber enpresari. Emaitzak eskuetan dituenean, zein neurri hartu behar den erabakitzeko ordua izango da.

## Seme-alaben heziketarako formazio saioak

Gizarte Ongizateko saileko Prebentzio zerbitzuak 2006an gurasoentzako antolatutako saioetan ia ehun lagunek hartu dute parte.

| Ekintza | Izena eman | Parte hartu |
|---|---|---|
| Guraso eskolak:<br>-Haur hezkuntza<br>-Lehen hezkuntza<br>-DBH/DBHO | <br>28<br>13<br>26 | <br>20<br>0<br>21 |
| Adaptazio hitzaldia. 2-3 urte bitarteko haurren gurasoak | 19 | 19 |
| Teknologia berriak. 6-12 urte bitarteko haurren gurasoak | 20 | 15 |
| Droga kontsumoa. 12-16 urte bitarteko gazteen gurasoak | 21 | 15 |
| Guztira | **127** | **90** |

## Mejoras para la accesibilidad de todos

Las labores de mejora de la accesibilidad continúan su curso. Ahora ha sido la calle Madura la que ha acogido los rebajes en las aceras, necesarios para acceder a los pasos de cebra, pero no serán los últimos pasos que el Ayuntamiento adecue en Bergara.

El colegio Martínez de Irala también disfrutará de mejoras en su accesibilidad. La puerta de acceso al comedor será ensanchada y se adecuará una rampa que salve el desnivel. Se ha previsto que estas obras se realicen en época de vacaciones de los estudiantes, para no obstaculizar el curso escolar.



# Ayudas de Emergencia Social (AES) 2006

Continuando con la información que hemos ido facilitando en boletines anteriores sobre las bases de ingresos que dan derecho a recibir las Ayudas de Emergencia Social, detallamos a continuación las modificaciones que se han producido durante el año 2006.

-Bases de ingresos familiares anuales que pueden dar derecho a recibir las Ayudas de Emergencia Social.

| | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| Para familias de 1 miembro | 9.103,14 € | 9.882,18 € |
| Para familias de 2 miembros | 11.796,48 € | 12.722,04 € |
| Para familias de 3 miembros | 12.873,78 € | 13.857,84 € |
| Para familias de 4 ó más miembros | 13.466,34 € | 14.198,58 € |

-Los importes de las ayudas ANUALES concedidas durante el 2006 han sido por conceptos, y como máximo, las siguientes:

| | |
|---|---|
| Gastos de alquiler de vivienda o alojamiento en su caso, o gastos derivados de intereses y de amortización de créditos solicitados para adquisición de vivienda. | 3.360 € |
| Otros gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda. | 1.082 € |
| Gastos relativos a necesidades primarias. | 1.803 € |
| Otras | A valorar |

La tramitación de solicitud de estas ayudas, se lleva a cabo en el Departamento de Bienestar Social del Ayuntamiento.

# Ayudas de Emergencia Social concedidas en el 2006

Tomando como base los requisitos que se han indicado anteriormente, se detallan a continuación por conceptos, las Ayudas de Emergencia Social concedidas durante el pasado año 2006 en el Ayuntamiento de Bergara.

| | |
|---|---|
| Gastos de alquiler de vivienda o alojamiento en su caso, ó gastos derivados de intereses y de amortización de créditos para adquisición de vivienda. | 91.348,34 € |
| Otros gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda. | 48.790,26 € |
| Gastos relativos a las necesidades primarias. | 5.392,85 € |
| TOTAL | 145.531,45 € |

A este total de gasto se le ha hecho frente de la siguiente forma:

| | |
|---|---|
| Subvención del Gobierno Vasco | 123.557,00 € |
| Aportación del Ayuntamiento de Bergara | 21.974,45 € |
| TOTAL | 145.531,45 € |

La mayoría de los beneficiarios son mayores de 35 años y proceden de la Comunidad Autónoma y del Estado. En cuanto al tipo de familia, la mayoría son personas solas, siendo en su mayoría mujeres l@s titulares de las mismas.

| TOTAL DE BENEFICIARIOS | 97 familias |
|---|---|
| EDAD<br>Hasta 35 años<br>De 36 a 65 años<br>Más de 65 años | <br>17<br>43<br>37 |
| PROCEDENCIA<br>Comunidad Autónoma y Resto del Estado<br>Otros países | <br>78<br>19 |
| TIPO DE FAMILIA<br>•Personas solas: 36 Mujeres y 25 Hombres<br>•Familias<br>•Familias Monoparentales: 8 Mujeres y 0 Hombres<br>•Otros Titulares | <br>61<br>23<br>8<br>5 |

# Langabetuekin egindako ikastaroak

Osasun, Enplegu eta Gizarte Gaietarako saileko Enplegu zerbitzuak 2006an zehar INEM, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Europako Gizarte Fondoko dirulaguntzekin, 18 urtetik gorako langabetuei zuzendutako ikastaroak eskaini ditu.

Helburua hau izan da: lanbide arlo batetan lanik gabe dagoen taldeari prestakuntza egokia ematea eta lanpostu bat lortzeko laguntza eskaintzea.

Ikastaroak martxoan hasi eta azkenengoa abenduan amaitu da. Talde bakoitzean 15 pertsonek parte hartu dute, Informatika arlokoetan berriz 12 pertsonek.

Eskaini diren ikastaroak honako hauek izan dira:
-Elektrizista industriala, 339 ordukoa. Martxotik, uztailera arte.
-Makina Herraminta Operadorea, 309 ordu. Martxotik uztailera arte.
-Geriatria Laguntzailea, 100 ordu. Ekainetik uztailera arte.
-Informatika Hasiera. Windows-Word, 2 ikastaro 50 ordukoa bakoitza. Martxotik apirilera bat eta azarotik abendura bestea.

**LANBIDE** Euskal Enplegu zerbitzua Udaleko sail beretik kudeatzen da, eta bertan, 2006an izandako kontsultak hauek dira:
-111 pertsona izan ziren lehenengo aldiz, beraien lan eskariak bideratzen.
-350 pertsona atenditu ziren, beraien lan eskariak osatuz, lan eskaintzetan izena emanez, eta lana aurkitzeko toki egokietara bideratuz.

## La Historia se acerca a los ciudadanos a través del cine

El archivo municipal quiere acercar la Historia a los ciudadanos y, para ello, ha aprovechado la cercanía del cine. Ha organizado un ciclo de conferencias para explicar cómo el cine ha reflejado gran variedad de hechos y situaciones históricas.

Mediante este ciclo, los conferenciantes explican principalmente hechos históricos ocurridos durante el siglo XX. Para ello, disponen de fragmentos de películas, que explican gráficamente cuáles han sido los diferentes tratamientos que el cine ha ido dando a la Historia.

Las conferencias son mensuales, salvando los tres meses estivales, y la segunda de ellas tendrá lugar el próximo 28 de febrero.

En el archivo municipal principalmente se guardan documentos escritos, pero son cada vez más variados los soportes en los que se archivan los documentos importantes para nuestro pueblo. Así, además de los mencionados escritos, cada vez son más las entrevistas grabadas, las fotografías y el material audiovisual archivado.

Actualmente el archivo es consultado principalmente por investigadores, aunque también se acercan a él ciudadanos con inquietudes históricas.

**Ciclo "Relación entre el cine y la historia"**

| Fecha | Conferenciante | Título | Idioma |
|---|---|---|---|
| 28/02/2007 | Juan Madariaga | Errusiar 1917ko iraultza eta Sobiet Batasunaren eraikuntza | E |
| 21/03/2007 | Juan Madariaga | Los años de la autoridad y el orden: los fascismos | C |
| 18/04/2007 | Imanol Zumalde | Espainiako II Errepublika | E |
| 23/05/2007 | Santiago de Pablo | La guerra civil de 1936 en Euskal Herria | C |
| 19/09/2007 | Juan Madariaga | Frankisten imaginarioaren eraikuntza: espainolada | E |
| 24/10/2007 | Iñigo Marzabal | Vietnamgo gerra zineman | E |
| 21/11/2007 | Juan Madariaga | La difícil convivencia de entidades encontradas: los Balcanes | C |

## Kirol materiala euskaraz sortuz

Aurtengo Kirola Euskaraz bekaren bitartez bi ekintzari buruzko fitxak euskaratuko dituzte. Jaioberrien ur jarduerari buruzkoak eta areto-futbolari buruzkoak. 17. edizio honetan euskaratuko diren fitxak, eskola kirolean, heziketa fisikoan, klubetan eta gimnasioetan aritzen diren teknikari eta monitoreei zuzenduta egongo dira.

Jaioberrien ur jarduerei buruzko fitxetan honako arlo hauek landuko dituzte: Jarduera horren historia, garapena eta egungo egoera, jarduera horrek 3-6 urte bitarteko haurrentzat dituen onurak, esku hartze psikopedagogikoa eta praktika, kirol horren antolaketa, instalazio eta ekipamendua, gurasoendako ariketak eta, azkenik, adinaren araberako jarduerak.



Areto-futbolari dagokionez, kirol horren historia, kirolaren edukiak, irakaskuntza prozesua etapa guztietan eta kirol horrek behar dituen baliabideak izango dira euskaraz landuko diren arloak.

## Udal liburutegiak oso bilakaera ona izan du 2006an eta maileguen kopurua nabarmen igo da

Udal liburutegiak bilakaera baikorra izan du 2006an. Aurreko urtean baino 4.035 mailegu gehiago egin ditu. Guztira 22.752 izan dira 2006an .

Orain arte behin bakarrik igaro du bi mila maileguen muga udal liburutegiak. Iaz, berriz, bost hilabetetan muga hori gainditu du eta beste sei hilabetetan oso gertu ibili da.

Mailegu gehien egiten diren hileak negukoak direla esan daiteke, baina ikusten da joera hori ere aldatuz doala eta, gainontzeko urtaroetan ere bergararrok gehiago irakurtzen dugula eta hartzen dugula liburutegiak duen materiala.

Liburutegiak gogoratu nahi die hiritarrei aste egunetan 08:30etatik 20:30etara egoten dela zabalik eta larunbatetan ere zerbitzua dutela 09:00etatik 13:00ak arte. Bitarte horretan liburutegian bertan kontsulta daitezke dauden egunkariak, liburuak, dvd-ak, cd-ak eta internet zerbitzua edo maileguak egin. Hori guztia doanekoa da.



## Zatoz euskaraz

Hainbat urtetako ahaleginari esker, Bergarako Udalak euskaraz bideratzen du nagusiki bere jarduna eta antzeko egoera dute Debagoieneko beste udal ba-tzuek ere.

Egoera horri eutsi eta ahal duen neurrian hobetzen jarraitzeko, maiatzaren 27ko udal hauteskundeak direla eta, Debagoieneko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Debagoieneko udaletako Euskara zerbitzuek alderdi politikoei eta herritarrei zuzendutako sentiberatze kanpaina abiatu dute.

Kanpainaren barruan, alde batetik, alderdi politikoekin bilerak egingo dira euren zerrendetan hautagai euskaldunak izateak duen garrantzia azpimarratzeko.

Bestetik, berriz, etxe guztietara “Zatoz euskaraz” izeneko diptiko bat bidaliko da, ekimena ezagutzera emateko eta, bide batez, herritarrak udalarekin euskaraz egitera animatzeko. Diptiko horretan herriaren eta udalaren egoera soziolinguistikoaren berri ematen da, modu laburrean.

Euskara zerbitzuek abian duten kanpainaren bitartez, beraz, herritarrak zein politikari eta alderdi politikoak ere eguneroko jardunean euskaraz aritzeko animatu nahi dituzte.




## Cursos básicos de Internet y firma digital en marzo

Aquellos ciudadanos que deseen aprender a navegar en Internet y a usar el correo electrónico, disponen de las siguientes oportunidades.
Del 5 al 16 de marzo, de 11:00 a 13:00 horas.
Del 5 al 16, de 18:00 a 20:00 h.
Del 19 al 30, de 09:00 a 11:00 h.
Del 22 al 30, de 16:00 a 18:00 h.

Además, ya se puede tramitar la tarjeta de ciudadano en el Kz gunea. Oferta la posibilidad de poder usar la firma electrónica en numerosas gestiones administrativas on-line. Algunas de las administraciones en las que se puede utilizar son el INEM, Seguridad Social, Ayuntamientos, Agencia Estatal de Impuestos y bibliotecas. También es válida para navegar en el KZgunea.

Para más información dirigirse al Kzgunea y en la página web www.izenpe.com

# ( AGENDA )

| Eguna | Tokia | Ekitaldia |
|---|---|---|
| Martxoak 4 Igandea 17:30 | Agorrosingo Ekintza Gunean | Ipuin kontaketa: Iñaki Lasa. **“sssss”** ipuina. 3-6 urte bitartekoentzat |
| Martxoak 21 Asteazkena 18:30 | Miguel Altuna Institutuan | Hitzaldia: Los años de la autoridad y el orden: los fascismos |
| Martxoak 25 Igandea 12:30 | Udal pilotalekuan | Bergarako Udal Musika Bandaren 175. urteurrena: Gasteizko Udal Musika Bandaren kontzertua |
| Martxoak 31 Larunbata 09:00 | San Martin eta Munibe plazan eta Seminarioko patioan | Erramu Zapatuko Feria |

| Aroztegi Aretoa | |
|---|---|
| Martxoaren 2tik apirilaren 15era | Daniel Txopitearen margo lanak |
| Astelehenetik ostiralera: 18:00-20:30<br>Larunbatak: 12:00-14:00; 18:00-20:30<br>Igandeak: 12:00-14:00 | |

| Egitaraua gazteentzat | | |
|---|---|---|
| Play Station lehiaketa | Agorrosin | Martxoak 2 17:00 |
| Txotxongiloak zelan egin ikastaroa | Agorrosingo ludotekan | Martxoak 4/18/25 17:00- 20:00 |
| Emakumearen Nazioarteko eguna | | Martxoak 8 |
| Break dance ikastaroa | Agorrosin | Martxoak 11 17:00 |

| Zine Proiekzioak | | |
|---|---|---|
| Martxoak 17 | Piratas del Caribe | 17:00/19:00/22:00 |
| Martxoak 18 | Piratas del Caribe | 17:00/19:00 |
| Martxoak 31 | Obaba | 17:00/19:00/22:00 |
| Apirilak1 | Obaba | 17:00/19:00 |
| Agorrosinen, ekintza aretoan. Sarrera: 1 € | | |
| Sarrerak filma hasi baino lehenago salduko dira bertan | | |

| Jaiak | |
|---|---|
| Martxoak 25 | Elizamendiko Andra Mari Mainddao - Angiozar auzoa |

## Suradesa sugiere comprobar la solvencia de las constructoras

La sociedad pública de rehabilitación del Alto Deba, Suradesa, ha detectado últimamente tres casos de insolvencia en tres municipios del Alto Deba. Concretamente, en empresas constructoras encargadas de realizar mejoras en los edificios.

Estos contratistas han dejado obras iniciadas sin terminar, habiendo cobrado en muchos casos anticipos a cuenta. Esto se debe a la falta de capacidad técnica del contratista o a la baja solvencia de algunas empresas constructoras con dificultades estructurales, que entran con precios muy a la baja para que la vecindad les adjudique la obra. Una vez comenzada, esas enpresas no pueden hacer frente a la rehabilitación con el presupuesto aprobado. La insolvencia de la empresa hace que resulte muy difícil reclamar la finalización de la obra.

Suradesa ofrece sus servicios para informar a los vecinos que inicien alguna obra de rehabilitación, sobre las garantías de las empresas o gremios, con el fin de evitar futuros problemas. Además puede aportar conocimientos técnicos para la correcta evolución de la obra y evitar que se produzcan abusos por parte de los contratistas.

Suradesa tiene su sede en el paseo de Arrasate, en Mondragón, y ofrece sus servicios en todos y cada uno de los Ayuntamientos del Alto Deba.



## Kontseiluak Udalen hizkuntza politika neurtu du

Kontseiluak Euskal Herriko 66 udalerritako udalen hizkuntza politika neurtu eta liburu batean argitaratu du. Horretarako, udalon erabakiak, baliabideak eta emaitzak aztertu ditu eta 0tik 10era bitarteko puntuazioa eman dio herri bakoitzari.

Liburuan jasotakoaren arabera, Azpeitiko Udalak lortu du puntuazio altuena (6,82 puntu) eta Bergara (6,35) bosgarren izan da Lekeitio (6,58), Oñati (6,54) eta Tolosaren (6,48) ondoren.

## Hitzaldia: "Hizkuntzak zela ikasten dira?"

Udaleko Euskara Zerbitzuak, herriko ikastetxeen lankidetzarekin, gurasoentzako hitzaldia antolatu du martxoaren 28rako. Bergarako Kultur Etxean izango da arratsaldeko 7etan euskaraz. Josune Alberdi, Eibarko Berritzeguneko hizkuntzaren normalkuntza aholkularia, izango da hizlaria.

Hitzaldiari izenburu hauxe jarri zaio: "Hizkuntzak zela ikasten dira?"

Eta horren inguruan beste galdera bat ere planteatuko du hizlariak: Zer transmititzen eta erakusten dugu gurasook seme-alabekin dugun etengabeko komunikazioan?

Hain zuzen ere, horregatik antolatu da hitzaldi hau: komunikazio horretan zenbat gauza egiten den jakiteko, egiten dena baloratzeko, kontziente izateko, seme-alabek komunikatzeko duten gaitasuna modu egokian garatzen laguntzeko.

## Debagoienean 949 lagun ari dira GAP programan parte hartzen

Nazio Batuen Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak bultzatzen duten jasangarritasunaren aldeko GAP programak lagun ugari bereganatu ditu. Euskal Autonomia Erkidego osoan 13.324 dira parte hartzen ari diren pertsona eta familiak, horietako 949 Debagoienekoak.




GAP programaren helburu nagusia da ohitura jasangarriak bultzatzea herritarren artean. Horretarako, parte hartzen ari diren lagunek hainbat ohitura aldatu behar dute, egunerokotasunean inguruarekiko eragina hain kaltegarria izan ez dadin. Programatik aholkuak hartzen ari dira ura eta energia era egokian erabiltzeko, erosketak jasangarriagoak izan daitezen eta etxeko hondakinak murrizteko. Horretaz gainera, mugikortasuna hobetzeko aholkuak ere jasoko dituzte. Lau zatitan, beraz, banatu da programa eta fase bakoitzean gai bat lantzen ari dira. Maiatzean amaituko da programa eta ondoren emaitzak jakitera emango dira. Horrela, parte hartu dutenek programan parte hartu aurretiko ohiturak eta ondorengoak alderatu ahal izango dituzte.

Esku hartzen ari diren lagunek eta familiek ez dute ezer ordaindu eta izango dituzten onuren artean daude energia eta uraren kontsumoa murriztea, horrek dakarren gastu murrizketarekin, eta baita ere eguneroko garraioan energia gutxiago erabiltzea.

## Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

### Otsailaren 16ko bilkura
-Errege Seminarioko eraikinaren erabilera zesioen akordioak osatzeko UNED Bergara Fundazioaren, Telesforo de Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkartearen eta Bergarako Udalaren artean hitzarmena hilabeteko epean sinatzeko konpromisoa hartzea, baita Udalari dagokionean hitzarmena onartzea ere.

### Otsailaren 14ko bilkura
-Errege Seminarioko kiroletako patioa Estatuari erosteko hartutako erabakia osatzea eta erosketarengatik Estatuari 741.000 € ordaintzea (235.456,33 € dirutan eskritura publikoa sinatzen denean, eta gainontzekoa, eskualdatzen den lursailaren azpian, lur azpiko lehen sotoan, 24 garaje eskualdatuta 2008ko abenduaren 12a baino lehen).

### Otsailaren 12ko bilkura
-Udal plangintzako aholku batzordearen udal erregelamendua behin betiko onartzea.
-Zabalotegiko udal aretoa eraberritzeko proiektu teknikoaren idazketa 11.985 €tan adjudikatzea "E. Igartua estudios y proyectos S.L." enpresari.

### Otsailaren 5eko bilkura
-Udal Euskaltegia eraisteko eta Mizpirualde Zaharren Egoitza zabaltzeko eta egokitzeko proiektuaren idazketa-zerbitzuak kontratatzeko lehiaketa arautuko duten baldintzen pleguaren onartzea 240.000 euroko lizitazio oinarriarekin.

### Urtarrilaren 29ko bilkura
-Elosu auzoan 11.674,73 m2 erostea.
-Mankomunitatea Garraioaren Lurralde Agintaritza S.A.-n sar-tzeko Mankomunitateko Gobernu Juntak egindako proposamena onartzea.
-Bergarako Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak kudeatutako programen konturako zenbait dirulaguntza arautzen dituen araudiari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jartzea.
-Debagoieneko Tranbiaren trazaduraren 1. fasea (Bergara-Aretxabaleta tartea) egiteko proiektu aldatuari alegazioak aurkeztea.
-Udalerriko irisgarritasun plana aldatu eta eguneratzeko dokumentu gehigarriaren idazketa kontratatzeko baldintza administratiboen plegua onartzea 28.072 euroko lizitazio oinarriarekin.
-Bergarako Urteaga kaleko A-16 B eremu berriaren hirigintza garapenerako hitzarmenari hasierako onarpena eman eta jendaurrean jartzea.
-Pasa den abenduaren 30ean izandako atentatuaren kontra Euskadiko Udalen Elkarteak onartutako testua Bergarako Udalak onartzea.
-"Euskal Erakundeen Alde" ekimenarekin bat egiteko adierazpena onartzea. Onartutako testuan Lehendakariari buruzko adierazpena beste auziperatuei zabaltzen zaie.
-UNEDeko Fundazioak Bergarako Udalari egindako erabilera-zesioa (Errege Seminarioko zati batena) onartzea.
-Iñaki de Juana euskal presoari buruz aurkeztutako mozio alternatiboa onartzea.

### Abenduaren 18ko bilkura
-Udal planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. sektoreko plan partzialaren dokumentu bateratua onartzea.
-Udal planeamenduko Arau Subsidiarioen 43 areako 43-1 exekuzio unitatearen xehetasun azterlana behin betiko onartzea.
-Debagoienean autobus zerbitzua hobetzeak lehenengo urtean ekarriko duen defizitari aurre egiteko Udalak 70.118,83 euroko ekarpena egitea, Debagoieneko Mankomunitatea osatzen duten Udalek aurreikusitako defizit guztiaren %20ari aurre egiteko konpromisoa hartu baitute.
-Agorrosingo kirol eremuko kanpoko berdegunea egokitzeko 2007an 463.304,63 €ko diru-ekarpena egitea Bergarako Bihargitza 98, S.A. enpresari.
-Zubiaurre kalean ur zikinen sarean hoditeria berria jartzeagatik Construcciones Arreta C.B.k aurkeztutako 17.928,69 €ko faktura onartzea.
-Bolun edateko ur hoditeria berritzeko lanen proiektu teknikoa eta adjudikazioa arautuko duen baldintzen plegua onartzea, 48.793,07 euroko lizitazio oinarriarekin.
-Carmelo Olabarria Igeltseritza, S.L." enpresari Matxiategiko jolasguneko hainbat lan 24.632,40 eurotan adjudikatzea.
-Istripuen prebentzioaren inguruan mozioa onartzea.
-Bergarako San Lorentzo auzoko (40 areako) etxebizitzetarako eremu berriaren eta 43. arearen hirigintza garapenerako hitzarmena behin betiko onartzea.
-San Juan auzoko Larramendi eremuan garapen industrialerako, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onarpena ematea.

### Pleno del 16 de febrero
-Adopción del compromiso de suscribir en el plazo de un mes el convenio entre la Fundación UNED-Bergara, la Ikastola Telesforo de Aranzadi Sociedad Cooperativa y el Ayuntamiento de Bergara con el fin de completar los acuerdos de cesión de uso del edificio del Real Seminario, así como la aprobación de dicho convenio por parte del Ayuntamiento.

### Pleno del 14 de febrero
-Completar el acuerdo adoptado para la compra del patio del Real Seminario al Estado y abonarle al mismo la cantidad de 741.000 € por dicha compra (235.456,33 € en metálico en el momento de la firma de la escritura pública, y el resto transmitiéndole 24 garajes subterráneos que se construirán en la primera planta de sótano bajo la parcela objeto de transmisión).

### Pleno del 12 de febrero
-Aprobación definitiva del reglamento municipal del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.
-Adjudicación a la empresa "E. Igartua estudios y proyectos S.L." de los trabajos de redacción del proyecto técnico para la reforma del salón municipal Zabalotegi, en 11.985 €.

### Pleno del 5 de febrero
-Aprobación del pliego de condiciones que regirán el concurso para la contratación de los servicios para redactar el proyecto de derribo del Euskaltegi Municipal y de ampliación y acondicionamiento de la Residencia de Ancianos Mizpirualde, con una base de licitación de 240.000 euros.

### Pleno del 29 de enero
-Adquisición de 11.674,73 m2 de terreno en el barrio de Elosu.
-Aprobación de la propuesta realizada por la Junta de Gobierno de la Mancomunidad para la integración de la Mancomunidad en la empresa Garraioaren Lurralde Agintaritza S.A.
-Aprobación inicial y exposición al público de la normativa por la que se regulan diversas subvenciones a conceder a cargo de los programas gestionados por el Servicio de Educación del Ayuntamiento de Bergara
-Presentación de las alegaciones al proyecto modificado de la 1ª fase (tramo Bergara-Aretxabaleta) del Tranvía del Alto Deba.
-Aprobación del pliego de condiciones que regulará la contratación de los trabajos de redacción del documento complementario para la modificación y actualización del plan de accesibilidad del municipio, con una base de licitación de 28.072 euros.
-Aprobación inicial y exposición al público del convenio para el desarrollo urbanístico de la nueva zona A-16B de la calle Urteaga de Bergara.
-Aprobación por parte del Ayuntamiento de Bergara del texto aprobado por la Asociación de Municipios de Euskadi contra el atentado ocurrido el pasado 30 de diciembre.
-Aprobación de la declaración institucional a favor de la iniciativa "Euskal Erakundeen Alde".En el texto aprobado se extiende la dclaración sobre el Lehendakari a los otros imputados.
-Aprobación de la cesión de uso (de parte del Real Seminario) realizada por la Fundación de la UNED al Ayuntamiento de Bergara.
-Aprobación de la moción alternativa presentada sobre el preso vasco Iñaki de Juana.

### Pleno del 18 de diciembre
-Aprobación del texto refundido del Plan Parcial del Sector 3 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.
-Aprobación definitiva del estudio de detalle de la unidad de ejecución 43-1 del área 43 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.
-Aportación de 70.118,83 euros para cubrir el déficit generado durante el primer año por las mejoras realizadas en el servicio de autobuses del Alto Deba, dado que los municipios que componen la Mancomunidad del Alto Deba han asumido el compromiso de financiar el 20 % del déficit total previsto.
-Aportación de 463.304,63 € durante el 2007 a la empresa "Bergarako Bihargitza 98, S.A." para la adecuación de la zona verde exterior de la zona deportiva de Agorrosin.
-Aprobación de la factura presentada por la empresa "Construcciones Arreta C.B." por las obras de renovación de las tuberías de la red de aguas residuales de la calle Zubiaurre, que asciende a 17.928,69 euros.
-Aprobación de la propuesta técnica y del pliego de condiciones administrativas que regularán los trabajos para la renovación de la canalización de agua potable del barrio de Bolu, con una base de licitación de 48.793,07 euros.
-Adjudicación de una serie de trabajos en la zona recreativa de Matxiategi a la empresa "Carmelo Olabarria Igeltseritza, S.L." en 24.632,40 euros.
-Aprobación de la moción sobre la prevención de accidentes.
-Propuesta de aprobación definitiva del convenio para el desarrollo urbanístico de la nueva zona residencial del barrio de San Lorenzo de Bergara (área 40) y del área 43.
-Aprobación provisional del documento de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal para el desarrollo de un área industrial en la zona de Larramendi del barrio de San Juan.

# Aritzetako San Migel

## Auzoaren kokapena, historia eta monumentuak

San Migel mendian, Bergararrentzako garrantzi berezia izan duen mendian dago Aritzetako San Migel auzoa. Historia handiko auzoa dugu, hor dagoelako Debagoieneko ermitarik zaharrenetako bat.



San Migel ermitari buruz ezagutzen den lehen agiria XI. mendekoa da, 1050ekoa hain zuzen. Agiri horrek dioenez, Don Sancho izeneko jaun batek Bergarako Aritzetako San Migel Monasterioan zituen lur batzuk Aragoiko San Juan de la Peña Monasterioari eman zizkion dohaintzan. Ermitak mendeetan etxetxo bat, ermita zaintzeko andereentzat, eta soroak izan zituen. Baina desamortizazio legeak iritsi zirenean ermitaren inguruko lurrak saldu egin behar izan zituzten.

XI. mendean zuen egituratik elemento bakarra gordetzen du San Migel ermitak: gurutze-gangadun absidea da. Ez du apaindura handirik eta oinarria gurutze latindar erakoa da. Horren alboetan eta gainean ertz gangak daude. Arkupe zabala du eta absidean San Migelen irudia, Gure Jaunaren Igokundearen irudiarekin erretaulatxoa eta Santuaren domina handia daude.

### Sinismenak eta usteak

Aintzina, kristau fededunak San Migel ermitara joaten ziren "Errosene" gaitza sendatzeko eskatzera. Gaitz hori da bularreko haurrei buruan irteten zitzaien zarakarra. Herrian zerabilten beste kontu bat zen Zaldun Tenplarioek hango ermitan egiten zituztela Ordenako ospakizunak.

Bergararrok ziur dakiguna da ezbehar ugari izan dituela ermitak, batzuk naturak eraginda eta beste batzuk gizakiaren eskua tarteko. Esate baterako, tximistek behin baino gehiago jo eta txikitu dute. Gerra garaietan ere behin baino gehiagotan suntsitu du gizonak. Beste batzuetan, berriz, abandonatuta egon da eta erortzeko zorian egoteraino iritsi da. Profanatua ere izan da.



### Herritarrek berreraiki

San Migel ermita baina, oso garrantzitsua izan da beti Bergaran, besteak beste ekaitza zetorrela adierazten zutelako handik kanpai hotsen bitartez.

### Armarriak

Sagastizabal baserriak familiaren armarria du fatxada nagusiko arku eder bien artean. San Migel auzora joateko Ozaeta zubitik irten eta saihesbidea eskuinean utziz, Aritzetarantz abiatu behar da.

## [ Udal zerbitzuen telefono eta faxak ]

Ayuntamiento:

San Martín de Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telf.: 943 77 91 00
Fax: 943 77 91 63
E-mail: bergara@bergara.net

| | | |
|---|---|---|
| ALKATETZA | tel: 943 77 91 01 | fax: 943 77 91 63 |
| ARTXIBOA | tel: 943 77 91 32 | fax: 943 77 91 63 |
| LIBURUTEGIA-KULTURA ETXEA | tel: 943 77 91 62 | fax: 943 77 91 69 |
| ANGIOZARKO LIBURUTEGIA | tel: 943 76 16 19 | |
| OSINTXUKO LIBURUTEGIA | tel: 943 76 23 76 | |
| GIZARTE ONGIZATEA | tel: 943 77 91 65 | fax: 943 77 91 63 |
| HILERRIA | tel: 943 76 27 81 | fax: 943 77 91 63 |
| ENPRESA-BATZORDEA | tel: 943 77 91 73 | fax: 943 77 91 63 |
| KULTURA | tel: 943 77 91 58 | fax: 943 77 91 69 |
| KIROLAK | tel: 943 77 91 67 | fax: 943 77 91 63 |
| EUSKARA | tel: 943 77 91 66 | fax: 943 77 91 63 |
| INFORMATIKA | tel: 943 77 91 37 | fax: 943 77 91 63 |
| KONTUHARTZAILETZA | tel: 943 77 91 64 | fax: 943 77 91 63 |
| OBRA ETA ZERBITZUAK-UDAL BILTEGIA | tel: 943 77 91 52 | fax: 943 77 91 20 |
| ONDARE ARTISTIKOA | tel: 943 77 91 62 | fax: 943 77 91 69 |
| UDALTZAINGOA | tel: 943 77 91 06 | fax: 943 77 91 63 |
| KIROLDEGIA | tel: 943 76 56 41 | fax: 943 77 91 63 |
| IGERILEKUAK | tel: 943 77 70 95 | fax: 943 77 91 63 |
| IDAZKARITZA | tel: 943 77 91 00 | fax: 943 77 91 63 |
| HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA | tel: 943 77 91 68 | fax: 943 77 91 56 |

L.G./D.L.SS-1242/04

Editatzailea: Bergarako Udala
Egilea: Verbax, Consultores de comunicación
Tirada: Dohainiko 5.500 ale
Banaketa: Etxez-etxe